



ISILTASUN ITUNAREN OSTEAN

EUSKAL LITERATURA
ETA MEMORIA

ANA URKIZA

INFORMAZIO ZIENTZIAN
LIZENTZIADUNA ETA ENPRESA
KOMUNIKAZIOAN ADITUA

IDAZLEA

Memoria aztarna da. Gordezen duguna. Gogoratzen duguna. Ahaztu ez duguna. Orainetik iraganera egiten dugun bidaia. Oraina erakitzekeo tresna. Gaurtik etengabe sortzen dugun dimentsio berria. Baina ez hori bakarrik. Baizik eta hizki handiz idatzitako Historiaren bertsio berriak emateaz gain, identitate propioa erakitzekeo iturria.

Euskal literaturak identitate hori sortzekeo gerra zibilaren aurretik egin zuen lehenbiziko saiakera: balioak zehaztu zituen. Eta euskal identitatearen definizio horrek gaur egunera arte iraun du euskal literaturari esker. Hasieran, literatura bera izan zelako aipatu identitatea transmititzeko bidea. Ondoren, gerra zibilak eta ondoko isiltasun itunak euskal identitatea ukatu zuelako eta zerbaiti oratu beharra zegoelako.

Gaur, oraindik, identitate horren eraikuntzan dihardu, tradizioa oinarri, memoria lekuko.

SARRERAKOAK

UKATU EGIN ZIGUTEN ITUNIK EGON ZENIK⁽¹⁾

Ez omen zen halakorik sinatu trantsizioko indar demokratiko berrien eta erregimenarekin kolaboratu zutenen artean. Hala zioten. Ez zela inolako paperik ez aztarnarik sekula aurkituko.

Zer izan zen, bada, izenik eman ezin zitzaion eta inon idatzita utzi ez zen itun hura? Frankismoaren erruaren pisua jaso zuten “besteek”, eskuak garbi zituztenek.

Eta hauek, demokrata askotariko berriek, askatasun berri baterantz abiatzeko aukera eskuratu zuten.

Kolaboratzaileen gainera isiltasun mantua zabaldu zen. Sekula ezer gertatu ez balitz bezala tratatuak izango ziren.

Ez hori bakarrik. Baizik eta egitura politiko berrian ere, ezinbestekoak izango zirela erabaki zen.

Halaxe, bada, hizki handiz idatzitako Historiari (Espainiakoari, Euskal Herrikoari) koxka handi bat kendu zitzaion.

Existitu ez zen isiltasunaren itun hark eragin atzera egilea izan zuen eta aurreko 40 urteak beregain hartu zituen.

Adierazpen askatasunari dagokionean ere, ez zela munstroa esnatzeko garaia ulertarazi zuten. Eta itunarekin bat zetorren lengoia zabaltzen hasi zen, eufemismoz betea. Azalpen historikoak ingurumariz gainezka.

Munstroak lo jarraitzen zuela bermatu behar zen. Oraindik esna zitekeen beldur zen anitz lekuko.

Diktadurak diktadura izateari utziko zion eta “aurreko erregimena” izaten hasi; kaudilloa, handik aurrera, generala izango zen; eta Gerra Zibilari buruz, nola ez, interpretazio publiko berri bat eman zen.

Interpretaziorik objektiboena ere 1939an bukatzen zen, isiltasunaren ituna 1940 arte helduko baitzen. Ondotikoez, hizki handiz idatzitako Historia egingo zen kargu.

UKATU EGIN ZIGUTEN ISILDUAK IZAN GINENIK

Urteak pasatuz doazen heinean, eta leku-koak denboraren menpe gelditzen, iraganean gertatutako oro memoria da, akordua. Gogoratzten dugunarena, kontatu zigutenarena, ahaztu ez genuenarena... sarri askotan, beti ez esateagatik, interes askotarikoek moldatua.

Memoria, halabaina, geratzen dena da. Daukagun aztarna. Aztarnarik gabe, ez dago memoriarik eta memoriarik gabe ez dago Historiarik. *“Memoria da egia bakarra”* esango du isiltasun ituna apurtzera ausartu den Gerra Zibila bizitako lekuko batek. Memoria, *“eskubidea eta justizia da”* esango du beste batek, *“gure arbasoei zer gertatu zitzaion ezagutzeko, zer ginen eta nolakoak ginen jakiteko, kantatzen zergatik jarraitzen dugun ulertzeko”*.

MEMORIARI TIRAKA

Isiltasunaren itunaren ostean, lekuko batzuen memoriari tiraka eginez, berauen hitzak eta isiltasuna jaso ditut. Eta nire memoria laburrari tiraka eginez, hozka egiten dizkidaten esaldiak ekarri ditut gogora.

Ariketa honi esker, urte ezberdinetan zehar egindako bost elkarrizketa eta gomutan iltzatuta gelditu zaizkidan erantzunak jasotzen eta lotzen saiatuko naiz.

Lerrootara dakardan lehenbiziko gomuta 1979koa da. Herriko ETAKide bat hil zutenean, haren aitari entzundakoa: *“Gure semea ez da alferrik erori. Zuek hemen zaudetelako, beti izango dugu gogoan”*.

EUSKAL IDENTITATEAREN DEFINIZIOAK GAUR EGUNERA ARTE IRAUN DU EUSKAL LITERATURARI ESKER

Bigarrena, 1987koa. Gerra Zibilean, ume-txoa zela, guraso biak galdu zituela kontatu zidan lekukoak. Ez zeukala ezer gehiago kontatzeko. Ez zuela merezi. *“Gu eskualdunak gerade... kantatzen erakutsi ziguten eta guk kantatzen jarraitu dugu”* aitortu zidan azkenean. Baina begitartea nola argitu zitzaion gogoratzen dut, kantu haren doinua ezpaineratu zuenean.

Hirugarrena, 1991koa. Atxagak *Obabakoak* liburuarekin 1989ko Sari Nazionala irabazi ondoren, literatura tailer batean entzundakoa: *“Euskaraz idatzitako nobeletan bestelako mundu bat ageri da, gainontzeko hizkuntzetan transmititu ezin dena. Iruditeria eta balioak propioak dira, lekuek eta pertsonaiek arima berezia dute”*.

Laugarrena, 2004koa. ETAKide bati, kartzelatik bueltan egin zitzaion ongetorrian entzundakoa: *“sustraiak mantendu naute tente”*.

Eta bosgarrena, 2018koa. Idazle gazte bati aurrez aurreko elkarrizketan jasotakoa: *“Gutaz, euskaraz, guk bakarrik idatzi dugu”*.

Bere horretan, bost esaldiok, xaloak direla dirudite. Baina berauetatik, tiraka hasita, lanerako bost ardatz edo ideia atera ahal ditugu:

Batetik, kolektibo batek zerbait partekatzen duenean (nahiz eta heriotza izan), oroimenerako aztarna bat gelditzen da eta gogoratuko duten horrek batu egingo ditu. Aztarnak izateak eta gogoratzeak zentzua emango die.

Bigarrenik, isiltzera eta desagertzera kondenatuta edo derrigortuta egonda ere (gurasoak bezala hiltzera kondenatua, apika), sinbolo batek, kantu batek, herri baten eta norbanakoaren identitatea markatzen du eta irautera gonbidatzen.

Hirugarrenik, norbere hizkuntzan (norbere literaturan) idatzitako obrek ez dute salbokonduturik behar irakurleek beren herria eta honen ezau-garriak testu horietan deskubritzeko eta horiekin bat egiteko, salbatu direla arnasteko.

Laugarrenik, “besteengandik” bereizten gaituena definituta izateak lagundu egiten digu irauten, aurrera egiten.

Bosgarrenik: Gerra Zibilari, trantsizioari, ETAr buruz idatzitako bibliografian apenas hartzen da kontuan sortzez euskaraz idatzitakorik. Beraz, idatzitakoak ez dira existitzen, guretzat izan ezik. Idatzitakoaren ikuspuntua ez du inork, guk izan ezik.

Memoria gaurtik eta etengabe sortzen dugun dimentsio berri bat da. Iragana eraikitze edo berreraikitze erabiltzen dugun tresna da, iragana ez baita berreskuratzen, baizik eta azaltzen edo ulertzen. Eta, prozesu horretan, literaturak, oro har, eta euskal literaturak bereziki, Historiak baino egiaziagoa izateko gaitasuna izan du gurean. Historia horren pasarte asko isilduak izan zirelako. Gu geu isilduak izan ginelako. Debekatutako pasarteak eta dolua bere egin ditu euskal literaturak eta, horrekin, identitate bat indartu du.

Memoria kolektiboa identitatearekin hertsiki lotuta dago. Assmann-ek (2) dio identitate kolektiboa kolektibo batek bere buruaz sortzen duen irudia dela eta taldeko partaideak irudi horrekin identifikatzen direla. Beraz, memoria eta identitatea konstrukzio bat dira.

Identitate kolektiboak partekatutako diskurtsoen bidez sortzen dira eta taldekideek “gure” eta “beraien” arteko diferentziak azpimarratzen dituzte, iraganeko diskurtsoak gogoratzen dituzte, betikoak izaten jarraitzen dutela sentitzeko, nahiz eta taldeko pertsonak aldatu (belaunaldi ezberdinak izan).

Talde horretako partaideak izateko norbanakoak talde horren Historia onartu behar du. Eta Historia horrek egiten du norbanako bakoitzak bere

herriaren iraganaz eta gertatutakoaz harrotasuna, mina edo lotsa sentitzea. “*Éz zuen merezi*” esan zuen lekukoak.

Euskal literaturak memoria historikoa berreskuratu edo berridatzi ez baina gertakari historikoak berreraiki nahi izan ditu. Hizki handiz idazten den Historiak bere diskurtsoetik at utzitako “istorioak” kontatzeko balio izan du. Urteetan eta hamarkadetan isilarazitako ahotsei protagonismoa ematea zatekeen helburua, historiografia klasikoak sortutako kolore bakarreko diskurtsoa puskatzea. Eta isiltasun itunari esker itxi gabe zeuden zauriei erantzuna eman.

EUSKAL LITERATURA ETA MEMORIA

EUSKAL LITERATURA MEMORIA EGITEN


M. Jose Olaziregik bere “*La recuperación de la memoria histórica en la novela*” (3) artikuluan adierazten duen bezala, XIX. mende bukarako emaitza literarioa baldintzatu zuen fenomeno nazionalismoa izan zen. Euskal nazionalismoak “imagined community” eraiki zuen Foruak, Euskara eta kondaira zaharretan oinarrituz. Testuinguru honetan kokatzen dugu lehenbiziko euskal nobelagiletzat hartzen dugun Txomin Agirreren “*Auñamendiko Lorea*” (1898), “*Kresala*” (1906) eta “*Garoa*” (1912) nobelak. Txomin Agirreren eragina berebizikoa izan zen euskal nobelagintzan baina baita ere euskal identitatearen definizioan. Txomin Agirrek bere obraren bidez ideologia nazionalistak zabaldu nahi zuen Euskal Herriaren, euskaldunaren eta euskal izatearen ikuspegi idealizatua eta tradizionalista transmititu zuen. Nazionalismoak euskal iruditeria eta euskaldun estereotipo jakin baterako elementuak indartu zituen.

Elementu horiek, besteak beste, balioak ziren, euskaldunen leinuaren (“leinu” terminoa nik ezarria da) balioak.

Balioak dira euskal identitatearen aztarnak, euskal literaturak Gerra Zibilaren aurretik zabaldu zituenak, isiltasunaren itunaren garaian eutsi gura izan dituenak (eta helduleku izan direnak) eta isiltasun itunaren ondoren, berreskuratetik harago, biformulatu nahi izan dituenak.

GERRA ZIBILAREN AURRETIK EUSKAL LITERATURAN JASOTAKO BALIOAK

Gerra Zibilaren aurretik euskal literaturak eraikitako balioen zerrendan, Iñaki Azkoagak “*Vasco, ¿cómo se llama tu país?*” (4) liburuan honakoak jasotzen ditu:



**ISILTZERA ETA DESAGERTZERA
KONDENATUTA EGONDA ERE, SINBOLO
BATEK, KANTU BATEK... HERRI BATEN
ETA NORBANAKOAREN IDENTITATEA
MARKATZEN DU ETA IRAUTERA
GONBIDATZEN**

Zintzotasuna: balio honen baitan, hiru ideia jasotzen dira nagusiki: batetik, fededuna edo sines-tuna izatea, fedeak pertsona onak eta zintzoak egiten zituelako euskaldunak; bestetik, langileak izatea: familiak eta herriak eraikitzen dakien komunitatea zen euskaldunarena; eta, azkenik, emandako hitza errespetatzea: pertsona fidagarriak, iruzurrik egingo ez dutenak eta konfiantza irabazten dutenak izatea.

Ekintzailletza: balio honen baitan, bi ideia jasotzen dira: batetik, aitzindariak izatea, betidanik mundu zabalera irekia egon den herria dela defendatuz. Bai Elkanok munduari bira egin zionetik, eta baita baleak harrapatzeko marinelek itsasorik zabalenak gurutzatzen zituztenetik. Eta, bestetik, auzolanean aritzen jakitea, hau da, norbanakoaren interesetatik harago herriaren edo auzoaren mesedetan elkar bat eginda lanean aritzen jakitea.

Ituna lehenestea: balio honen baitan, bi ideia jasotzen dira nagusiki: batetik, lege edo foru propioak izatea eta, bestetik, aitonen seme izatea, euskaldunek izandako iragan nobletik eratorritako legeak esaten duenaren arabera administratzea haziendak.

Kultura propioa izatea: hizkuntza propioa izatea da balio nagusia eta baita kulturaren manifestazio propioak izatea ere (dantza, musika, etab.).

Txomin Agirreren ondoren, 1930eko hamarkadan ezagutu zuen euskal literaturak bere mailarik gorena, Bigarren Errepublikaren garaian, poesiari esker. Lizardi, Lauaxeta eta Aitzolen helburua euskaraz idatzitako poesia euskal identitatea sinbolizatuko zuen tresna bilakatzea izan zen.

Euskarari eta hizkuntzaren garbitasunari ordura arte ez besteko garrantzia eman nahi zitzaion. Balio nagusizat joz.

BALIOAK DIRA EUSKAL IDENTITATEAREN AZTARNAK, EUSKAL LITERATURAK GERRA ZIBILAREN AURRETIK ZABALDU ZITUENAK, ISILTASUNAREN ITUNAREN GARAIAN EUTSI GURA IZAN ZITUENAK ETA ONDOREN BIRFORMULATU NAHI IZAN DITUENAK

LIZARDIK, LAUAXETA ETA AITOLEN HELBURUA EUSKARAZ IDATZITAKO POESÍA EUSKAL IDENTITATEA SINBOLIZATUKO ZUEN TRENSA BILAKATZEA IZAN ZEN

1936-1939ko Gerra Zibilak, ostera, errotik moztu zuen euskal literaturaren proiektzioa eta euskal identitatea sinbolizatzeke ametsa. Frankismoak zentsura ezarri zuen, besteak beste. Argitaratzea ia ezinezkoa zen. Eta mende hasierako **balioak** izan ziren helduleku.

Gerra Zibilaren ondoren idatzitako lehenbiziko eleberri isolatuak, kutsu autobiografikoz zipriztindutakoak tarteko, gerraren krudeltasuna deskribatzen hasten dira.

1975etik aurrera, Franco hil ostean, estatu espainolari buruzko ikuspegi bakarra, zatiezina eta banaezinaren ideiarena, aldatzen hasi zen. Testu alternatiboak agertzen hasi ziren. Eta euskal literaturan eta nazioari buruzko definizioetan ere beste hainbeste gertatuko zen.

Garai honetan, iragana-memoria binomioak indarra hartzen du. Hizki handiz idatzitako Historiaren aurpegi ezkontuak azaleratu nahi dira, iragana asmatutako eta benetan gertatutako kontakizunez eraikitako puzzlea dela ulertzen da, gure gaurko ikuspegiak iragana aldatu egiten duela eta, azken finean, iragana gure moldaketa dela.

Gerra Zibila ezagutu ez zuten idazleen tenorea da. Eta errealitate berri edo ezberdin horiei buruz hausnartzea izango dute helburu.

Obra hauetan bada aldatzen den aspektu nagusi bat, ordea, eta zera da: gertakizunetikiko perspektiba eta Nietzschek (5) esan zuen bezala, Historia monumentala kontatzenetik biktimen historia kontatzera egindako ibilbidea (biktimak, zeintzuek identitate bat zuten). Eta badira elementu batzuk mantentzen direnak: **balioak**. Galdutako mundutik gelditzen zitzaigun gauza bakarra. “Gu” eta “haiak” bereizteko balio zuten elementuak. Identitate propio baterako aztarnak. “Sustraiak mantendu naute tente” zioetan hark azpimarratu bezala.

1980tik 2000. urtera bitarteko obrei esker, iraganaren errepresentazioa aldatuz doa memoria kolektiboan, oraina aldatzen doan hein berean. Baina sustraia mantentzen da obretan. Oraingoan, tradizioaren izenean. Iraganarekin bat egiten laguntzen digun elementu gisa. Nortasun bereko izaten jarraitzen dugula sentiarazteko. “Gu” eta “beraiek”-en artean distantzia mantenduz. Nazio ikuspegia azpimarratuz. **Tradizioa** agertzen da **balio berri** gisa: eraldatu behar dena, baina oinarria dena. Gainontzeko balioak ez dira ezeztatzen, baizik eta tradizioaren barnean sartzen.

“Gu eskualdunak gerade... kantatzen erakutsi ziguten eta guk kantatzen jarraitu dugu”. Isiltasun itunaren ostean, lekukoak, isiltasunaren itsasoa nola nabigatu zuen jakitera eman zigun.

EUSKAL IDAZLEEK ZERGATIK GALDEGIN ZIOTEN MEMORIARI?

Den eta iraun nahi duen herri batek Historia bat izan behar duelako, iragan bat, nondik dato- rren kontatuko duen kontakizun bat. Identitate bat behar duelako. Berriro gerrarik gerta ez dadin. Ikasteko, kontzientziatzeko. Sinesgarritasunean irabazteko. Baketzeko, lasaitzeko. Eta nazio bat defendatzeko, memoria kolektiboa eraikiz.

Hau guztia eraikitzeko, aingura ezin hobeak izan dira **euskal balioak**. Gerra Zibilaren aurretik euskal literaturak eraikitako aztarnak. Tradizioari atxikiak.

1980tik aurrerako euskal literaturak, gainera, Gerra Zibila, frankismoa eta trantsizioa gogoratzeaz gain, ETArein jaiotza eta existentzia izan ditu azal- tzeko.

**MANTENTZEN DIREN ELEMENTUAK
BALIOAK DIRA. GALDUTAKO MUNDUTIK
GELDITU ZITZAIGUN GAUZA BAKARRA.
IDENTITATE PROPIO BATERAKO
AZTARNAK**

Eta hemen, biraketa gertatzen da. Literatura nazionalismoaren atzamarretatik banatzeko saia- kerari eusten zaio. Argi dago, euskaldunen diskur- tsoak bakarria izateari uzten diola. Eta, gutxienez, lautan sakabanatzen dela diskurtso berria(k). Eus- kal Herriaren errealitate sozial eta politiko berriaren irudi. “Euskaraz idatzitako nobeletan bestelako mundu bat ageri da. Iruditeria eta balioak propioak dira, lekuek eta pertsonaiek arima berezia dute” jaso genuela gogoratuko dugu.

BALIO BERRIAK ERAIKITZEN

Euskara eta euskal kulturaren aldeko alda- rria egiten da. Horiek behar dute euskal hiriaren identitate berriaren balioak: euskara eta euskal kultura.

Baina baita memoriak eraiki eta gorde dituen beste hauek ere:

Tradizioa: herri zaharra izateak dakarren oinarria, sustraia, benetakotasuna. Hasieraren azal- pen. Aztarnategia. Gogoratu eta gorde dugun guztia.

Iraun bizitzeko kemena: eta honi lotuta, berritzeko ahalmena. Hau da, zaharra eta berria, iragana eta etorkizuna uztartzeko saiakera.

Elkarlana: guztion onerako eta guztion partaidetzarekin ondasuna sortzeko eta zaintzeko egituratze modu propioa.

Txikitasunaren handitasuna: globaliza- zioaren aurrean originala suertatzen den ikuspegia.

Balio hauek ageri dira gaurko euskal litera- turan. Abangoardia maite duen antzinako herria garelako idatzi zuen Kirmen Uribe (6). Iraganari behar zaion errespetua erakutsiz, iraganaren eta oraina- ren artean hausturarik ekarri gabe eta diskurtsoa etorkizunari egokituz. Balioetatik hasita.

OHARRAK:

El pacto del silencio, José Antonio Gabriel y Galán, EL PAÍS, 1988/02/20.

Communicative and Cultural Memory, J. Assmann, Walter de Gruyter, 2008.

La recuperación de la memoria histórica en la novela, M. Jose Olaziregi, 2009 (Boston-eko Northeast MLA's 40th Anniversary Convention-eko hitzaldirako idatzitako artikulua).

Vasco, ¿cómo se llama tu país?, Iñaki Azkoaga, Autoedizioa, 2017.

Vom Nutzen und Nachteil der Historie, Nietzsche, 1874.

Abangoardia maite duen antzinako herria, Kirmen Uribe, Eusko Jaurkitza, 2018.

